

Dozenaka mila lagun bildu dira Berlinen arrazismoaren aurka

Bundesratek gaur erabakiko du NPD debekatzeko eskatu edo ez

Erredakzioa / Donostia

DOZENAKA MILA herritar elkartu ziren atzo Berlingo Sinagoga Berriaren atarian, arrazismoaren aurkako ibilaldian parte hartzeko. *Gizateriaren eta Tolerantziaren*

Alde Mugitzen Gara leloa zuen manifestazioak, eta martxaren buru egin zuten, besteak beste, Gerhard Schroeder Alemaniako kantzilerrak, Johannes Rau lehendakariak, eta Juduen Batzorde Zentraleko presidente Paul Spiegelek.

ALEMANIAKO alderdi politikoez, eskuin muturrekoek izan ezik, antolatu zuten atzoko ibilaldia. Izan ere, azken hilabeteetan izugarri gehitu dira eraso arrazistak sinagogen eta gutxiengoen aurka. Egun esanguratsua aukeratu zuten protesta egiteko: atzoko egunez, 1938an, gertatu zen *Kristallnacht*-a, Kristal Apurtuen Gaua; Alemaniako agintari naziek juduen aurkako errepresioa hasi zuten. 1989an, berriz, Berlingo Harresia erori zen.

Atzoko manifestazioa urrats bat izan zen azken eraso arrazistak salatzen, baina Gobernuak ekimen gehiago egin ditu eskuin muturreko alderdien aurka. NPD Alemaniako Alderdi Demokratiko Nazionala debekatzeko eskatu zion herenegun Schroederrek Auzitegi Konstituzionalari.

NPD alderdi txikia da, 6.000 kide ingurukoa. *Skinhead* gazte mugimenduari loturak ditu azken urteetan.

Bundesratek, Alemaniako Legebiltzarrak, gaur bozkatuko du Gobernuaren ekimena babesteko duen edo ez. Alemaniako 16 landerretako ordezkariak biltzen ditu gaur.

Baina NPD legez kanpo jartzeko ez da nahikoa Gobernu eta Bundesrat horren aldekoak izatea. Frogatu egin behar da eskuin muturreko alderdiak demokraziaren aurkako ekintzak egiten dituela. Horren ondoren, Konstituziotik at dagoela edo ez ondorioztatu behar da.

Kartzelara etorkinen etxeari erasotzeagatik

Landauko, Alemania mendebaldeko, auzitegi batek bederatzita hilabeteko kartzela zigorra ezarri zion atzo *skinhead* bati, asilo eskaera egin duten etorkinen etxe bati erasotzeagatik eta nazien agurra egiteagatik.

15 urte ditu zigortuak. Epaiaren arabera, horrek eta

20 urteko konplizeak molotov koktelak jaurti zizkieten urriaren 6an etorkinen etxe bati Billigheim-Ingenheimen, Palatinatuan. Molotov koktelak ez zuten jo eraikinean; ez zen zauriturik gertatu eta kalte materialik ez zen egon.

Erasoa egin eta aste batzuk geroago, 15 urteko gazteak nazien agurra egin zuten leiho batetik. Horri

esker atxilotu zuen Poliziak. Epaiak eraso eta agurra aintzat hartu zituen zigorra ezartzerakoan. Epaiaren arabera, gazteak bi delitu egin zituen eta epaietan ez zuten damua agertu.

Bestalde, sei *skinhead* epaitzen hasi ziren atzo Essen landerlean, Alemania erdian. Tren bidaia batean sei afrikarri erasotzea leporatu zitzaizkien.



PEER GRIMM / EPA

Milaka lagunek salatu zituzten eraso arrazistak atzo Berlinen.

ZATOZ GURE LURREKO OHITURAK EZAGUTZERA

Azaroaren 10tik 25era

Urbil
ZENTRO KOMERTZIALA
CENTRO COMERCIAL